



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

DESKRIBAPENA

“San Miguel” ikastetxea kalitatezko hezkuntza eskaintzen duen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da, bizitzari era kritikoan irekia eta balore hauek sustatzen dituena: taldeko lana, askatasuna, errespetua, aniztasuna eta ardura. Euskarazko irakaskuntza (“D” eredu), Erdarazko irakaskuntza (“A” eredu) eta 3 urtetik aurrera, Ingelesaren irakaskuntza eskaintzen ditu.

Bertako kulturaren oinarritutako hezkuntza garatzen du baina aldi berean, aniztasuna kontuan hartu eta baloratzen duen ikastetxea da. Ikasleen banakako arreta eta jarraipena bultzatzen ditu eta bere baliabideen artean liburutegia, psikomotrizitate eta musika gelak, soinketa aretoa eta kiroldegia ditu.

Kontzentrazioa izanik, Doneztebeko ikasleek gain, inguruko zenbait herritako ikasleak jasotzen ditu eta azken hauentzat jantokia eta dohaineko garraioa eskaintzen ditu.



XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA: Hezkuntza prozesuan pertsona izaten laguntzen duen eskola izan nahi dugu.

- ❖ Malerrekako eskualdean dagoen D ereduko 2 lerroko ikastetxe publikoa da, Donezteben kokatuta eta 3-12 urte bitarteko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak jasotzen ditu. Eskualdeko kontzentrazioa izanik, inguruko herrietatik ere ikasleak etortzen dira.
- ❖ Garraioa eta jantokia eskaintzen ditu, eta UT TG gela du, eskualdeko aniztasunari egoki erantzuteko. Eskolak lanaldi jarraia du eta astelehenetik ostegunera eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira.
- ❖ Euskara eta euskal kultura transmititzeko konpromisoa du, eta eleaniztasuna sustatzen du. Kalitatezko maila akademikoa lortzea du xede, betiere ikasleen ezaugarriak eta desberdintasunak kontuan hartuta, metodologia inklusiboa, lankidetzakoa eta hezkidetzakoa erabiliz.

IKUSPEGIA. Gure ikastetxean guzti hau lortu nahi dugu:

- ❖ Kalitatezko hezkuntza publikoa ikasle guztiei eskaintzen duen eskola.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

- ❖ Eskola komunitate integratzaile eta errespetuzkoa sustatzea, non aniztasuna aberasgarria dela onartzen den eta inklusioa lehentasuna den.
- ❖ Metodologia aktiboak, parte-hartzaileak eta praktikoak sendotzea, ikasleen interesekin eta testuinguruarekin lotuak.
- ❖ Ikasleen errendimendu eta garapen konpetentziala ebaluatzea, irakasleen formakuntza eta berrikuntzarako aukerak indartuz.
- ❖ kasleak: Gaitasunetan oinarritutako hezkuntza jasotzea, ohitura osasuntsuak eta ingurumenarekiko errespetua barneratuz.
- ❖ Familia eta komunitatea: Ikastetxearekiko konfiantza eta lankidetzatza sustatzea, hezkuntza prozesuan parte-hartze aktiboa bultzatuz.
- ❖ Irakasle eta langileak: Formakuntza jarraitua eskaintzea, inklusioa, metodologia aktiboak eta konpetentzien araberako ebaluazioan gaitasunak garatuz.
- ❖ Aniztasuna eta inklusioa sustatzeko: Proiektu inklusiboetan parte hartzea (adib. escuelas visuales), eta irakasleen prestakuntza programa iraunkorrak garatzea, kultura, sexu, erlijio, eta arraza desberdintasunak errespetuz eta modu integratzailean lantzeko.
- ❖ Metodologia aktiboak sendotzeko: Ikaskuntza parte-hartzailea, praktikoa eta testuingurura egokitua eskaintzen jarraitzea, metodologia aktiboen (ikaskuntza egoerak, lankidetzatza) erabilera hedatuz.
- ❖ Ohitura osasuntsuak eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko: Elikadura osasuntsua eta aktibitate fisikoak sustatzea (gosariak, jolastordu aktiboak, eta eskolaz kanpoko kirol jarduerak), baita hondakinen bilketa eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua sustatzen duten proiektuak ere.
- ❖ Konpetentzien araberako ebaluazioa indartzeko: Ikasleen errendimendua konpetentzien arabera neurtu eta ebaluatzeko gaitasuna areagotzea, irakasleen prestakuntza eta baliabide berriak eskainiz.



BALIOAK

- ❖ Inklusioa, Hezkidetzatza eta Errespetua.
- ❖ Euskara eta Kulturaren transmisioa.
- ❖ Osasuna eta Ongizatea.
- ❖ Ingurumenarekiko Erantzukizuna.
- ❖ Berrikuntza eta Etengabeko Hobekuntza.

ARAUDIA

Kurtsoaren egitura eta antolamendua honako lege hauetan oinarritzen da:

-Martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen.

-67/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

- 49/2013 Foru Agindua (Erreklamazioak)
- 93/2008 Foru Agindua, Aniztasunari arreta emateko.
- 60/2014 Foru Dekretua, Aniztasunari arreta emateko.

Eskolako Bizikidetza araudia Eskolako Elkarbizitza Planaren barruan sartzen da. Legedi berriari erantzuten dio, 47/2010 Foru Dekretuari, Ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituen, eta 204/2010 Foru Aginduari, Ikastetxeko Elkarbizitza arautzen duena.

Dekretu honek besteak beste guraso edota legezko ordezkarien eskubideak eta betebeharrak biltzen ditu.

GURASO EDO LEGEZKO ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

(Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan aitortutako eskubideak dituzte).

Eskubideak:

Hezkuntza Departamentuak aurreko puntuan adierazitako eskubideak erabili ahal izatea bermatuko du. Bereziki bermatuko da gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzeko duten eskubidea, deusetan galarazi gabe ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasleei esleitutako eskumenak. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea. Hori dela eta, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkariak.
- Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten erreklamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.
- Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztea, indarreko araudiari jarraikiz.
- Beren seme-alaben orientazio akademikoaren edo profesionalaren gaineko erabakiak hartzen direnean, entzuna izatea, aurreko puntuetan adierazitako parte-hartzea deusetan galarazi gabe.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

•Ikastetxearen antolaketan, gobernuan eta funtzionamenduaren balorazioan parte hartzea, Eskola Kontseiluan edo ikastetxeko gurasoen elkarteetan parte hartuz.

Betebeharrak:

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatz-zatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratuko dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla begiratuko dituzte:

•Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.

•Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina eta erraza izatea.

•Beren seme-alaben asistentzia, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.

• Beren seme-alabak ikastetxera eraman eta hartzeko orduan, puntualak izatea.

•Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.

•Eskola Komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.

•Ikastetxearen berezko izaera ezagutzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetaraztea.

Ondoren familien funtzionamenduan eragina duten arau batzuk aipatzen dizkizuegu:

Esparru guztietan betebeharreko arauak:

•Hezkuntza erkidegoko kide guztiak (gurasoak, irakasleak, ikasleak...) errespetuz hitz egingo dugu (tonu egokiz, entzumen gaitasuna eta ikuspuntu desberdinen onarpena), elkarbizitza helburu duten adostasunak bilatuz.

• Ikasleak ikastetxera bertaratuko dira:



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

- ☐ Ikaslearen etekina eta elkarbizitza baketsuak laguntzen dituzten beharrezko atseden orduak izan ondoren;
- ☐ Haien elikadura zaindu ondoren: gosari eta hamaiketako osasuntsuak;
- ☐ Pertsona ugariak osatzen duten talde batean elkarbizitzako oso beharrezkoak diren gorputz eta arroparen garbitasuna eta higieena zaindu ondoren;
- ☐ Osasun egoera onean: sukarrik gabe, gaixotasun kutsakorrik gabe... Sukarrarekin edo gaixotasun sintoma batekin agertzekotan, familiari ohartaraziko zaio, ikaslea hartzera pasa dadin.

•Ikasleen asistentzia erregularraren ardura gurasoek, tutoreek eta ordezkari legalek izango dute, era berean falta guztiak justifikatu beharko dituzte. Modu berean, ateratze-orduan puntual iritsiko dira.

•Hezkuntza zentroak ordutegi xedatu bat izango du guraso, tutore edo ordezkari legalekin bilerak izateko. Ordutegi honetaz kanpo, ezingo dira klaseak eta programatutako beste ekintzak moztu, Idazkaritzara joan beharko da bilera bat eskatzeko.

•Baliozko objektuak, nahiz objektu arriskutsuak ezingo dira ikastetxera ekarri, zentroa ez baita galtzen diren gauzen arduradun egiten, ezta ere eragindako edo jasandako kaltearen arduradun. Mugikorren kasuan, ezingo dira ikastetxera ekarri.

•Eskolako instalazioak eta materialak zainduko ditugu, ahalik eta hondatze txikiena izan dezaten.

Eskolako sarrera eta irteera arauak:

•Haur Hezkuntzako ikasleak Haur Hezkuntzako atetik sartu eta aterako dira eta Lehen Hezkuntzakoak sarrera nagusiko atetik.

•Patioko ateraino gurasoek lagundu ahalko dituzte. Eskolan kudeaketaren bat egin beharrean, gurasoak ate nagusitik idazkaritzaraino joango dira. **Familiek seme-alabak eskolako kanpoko atean (eskola eremuan sartu gabe) utzi eta jasoko dituzte adierazitako ordutegia errespetatuz. Salbuetsiak hiru urteko haurren familiak izanen dira, hauek Haur Hezkuntzako sarrerako ateraino sartzeko aukera izanen dute.**

• **Pilaketak ekiditzeko eskolako ateak 08:45ean irekita egonen dira.** Atea 09:05 ean itxiko da. Beranduago etorri gero sartzeko txirrina jo beharko duzue.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

•Ateratzeko orduan, irakasleak lagunduko ditu sarrerako ateraino Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleak. Ateratzeko orduan, ikasleren baten familia faltako balitz, ikastetxeko heldu baten ardurapean geratuko litzateke, eta telefonoz deituko luke, haurra hartzera pasa daitezen.

•Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek bakarrik atera ahal izateko [DK0248 etxera bakarrik joateko baimena \(Erregistroa\)](#) dokumentua sinatuta ekarri beharko dute.

•Garraioa erabiltzen duten ikasleak beraien herrietara dagokion autobusean bertaratuko dira. Garraiatua den ikasleren batek garraioa erabili behar ez badu, tutoreari agenda erabiliz jakinaraziko dio. Tutoreak irakasleren sitesen dagoen "[DK0124 Garraioko hutsegiteak kudeatzeko kontrol orria](#)" dokumentuan idatziko du.

Garraiatuak diren ikasleak autobusak gelditzen diren atearen ondotik aterako dira. Familiak hortik hartuko dituzte itzultzeko garraioa erabili behar ez badute, autobus zaindaria abisatuz.

•Garraioa erabiltzeko eskubiderik ez duten ikasleek, ezin dute garraioa erabili inondik inora. Eskola-garraiorako eskubidea duten ikasleek, garraio hori erabiltzen ez badute, jantokirako laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

- [2025/2026 ikasturteko egutegia](#)
- **Ordutegia**

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Hezkuntza Laguntza Unitateak aniztasunaren trataeraren planifikazioaren ardura dauka. Bere xede nagusia eskolan dauden behar ezberdinei erantzun egokia ematea da.

Hezkuntza Laguntza Unitatea Orientatzaileak (Ana Lobeiras), Pedagogia Terapeutikako irakasleak (Aiala Grajirena eta Ane Cuesta) eta Entzumen eta Hizkuntza irakasleak (Itziar Cerrillo) osatzen dute. San Miguel ikastetxeak, ahal den neurrian, ikasleekin egindako zuzenezko laguntzak gela barruan garatzen ditu. Lehen Hezkuntzan, aniztasunari aurre egiteko erabiltzen diren neurriak hauek dira:

ANIZTASUNAREN ARRETA/ATENCIÓN DIVERSIDAD



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZA

Hauek dira aniztasunari aurre egiteko, orokorrean aplikatuko diren neurriak:

- Neurri arruntak:
 - Bikoizketak
 - Arlo edo irakasgaien indartzea (2 irakasle gelan)
 - Hezkuntza Errefortzuak
 - **HE** = Hezkuntzako Errefortzua.
 - **HE CAL** = Hezkuntza Errefortzua Curriculum Aberasteari Lotua.
 - **HE CSE** = Hezkuntza Errefortzua Curriculumera Sarbideko Egokitzapenarekin.
 - BEP (Berreskurapen Plana)
 - Errepikapena
- Neurri bereziak:
 - Sarrerako Curriculum Egokitzapenak
 - CEG (Curriculum Egokitzapen Garrantzitsua)
 - Kurtso edo etapen iraupena malgutzea.

*Xehetasun gehiago [DK0082 Inklusio Plana \(Erregistroa\)](#) dokumentuan

IRAKASLEAK ETA ARLOAK

TUTOREAK:5.A-B	XABIER AZPIROZ-MIREN URRIZA	
	ARLOAK / ÁREAS	SAIO KOPURUA / SESIONES
Xabier Azpiroz Miren Urriza	Ingurune Naturalaren, Sozialaren eta Kulturalaren Ezagutza / Conocimiento del Medio Natural, Social y Cultural	4
	Gaztelania eta Literatura /Lengua Castellana y Literatura	4
	Euskara eta Literatura / Lengua Vasca y Literatura	6
	Balio Zibikoak eta Etikoen Hezkuntza Educación Valores Cívicos y Éticos	1
	Hezkuntza Arreta- Atención Educativa	1



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

	Matematika / Matemática	5
Begoña Mitxeo-Tutoreak	Arte Hezkuntza / Educación Artística	2
Jaione Iribarren	Erljioa - Hezkuntza Arreta Religión - Atención Educativa	1
Mikel Irigoyen	Gorputz Hezkuntza Educación Física	2
Elena Zabala	Atzerriko Hizkuntza /Lengua Extranjera	5

EBALUAZIOA

Maila bakoitzean, ikasturtean zehar hiru ebaluazio saio izango dira eta ikasturte honetan, honako datak erabiliko ditugu:

- 1.Ebaluazioa: azaroaren 21an akituko da.(56egun)
- 2.Ebaluazioa: martxoaren 13an akituko da. (60egun)
- 3.Ebaluazioa: ekainaren 5an akituko da.(50 egun)

Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, ikasle bakoitzaren kalifikazio txostena EDUCAREN bidez argitaratuko da eta familiarentzat ikusgai egonen da. **Boletinak paperan ez dira inprimatuko familiei banatzeko.** Familiei bai korreo bai eskolako difusio taldearen bidez txostenak argitaratuta daudela gogoraziko zaie. Honako data hauetan argitaratuko dira:

- 1.Ebaluazioa: abenduaren 19an (osteguna)
- 2.Ebaluazioa: martxoaren 31n (astelehena).
- 3.Ebaluazioa: ekainaren 26an (osteguna)

Bestalde, familiak Nafar Gobernuako Departamentuak sortutako Educa programaren bitartez, zuen seme alaben kalifikazioak, hutsegiteak eta bestelakoak kontsulta ditzakezue. Honetarako, familia bakoitzari bere erabiltzaile zenbakia dagokio eta eskolan bertan eska dezake.

Maila bakoitzeko arlo bakoitzean, programazioetan, ikasleak ebaluatze eta kalifikatzeko irizpideak jasotzen dira, eta horien arabera osatzen dira arlo bakoitzeko azken nota.

MAILAZ PROMOZIONATZEA

67/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curricula ezartzen duena.

14. artikulua. Mailaz igotzea.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

1. Ziklo bakoitzaren bukaeran, irakasle taldeak ikasleak ikasmailaz igotzeari buruzko erabakiak modu kolegiatuan hartuko ditu, eta bereziki kontuan hartuko ditu tutoreak emandako informazioa eta iritzia.
2. Ikasmaila bakoitzean, ikasleak behar den laguntza jasoko du aurreko ikasmailan lortu ez zituen ikaskuntzak berreskuratzeko, halakorik bada.
3. Kasuren batean, ikaslearen curriculum-atzerapenari edo ikasleak ikasteko dituen zailtasunei aurre egiteko aski neurri arrunt, egoki eta pertsonalizatu aplikatu ondoren, irakasle taldeak uste badu, ziklo bukaerako ikasmailaren bukaerako ebaluazio saioan, ikasmaila berean beste urte batez jarraitzea dela neurririk egokiena haren garapena aldezteko, berariazko errefortzu-plan bat antolatuko da, ikasmaila horretan espero den kasuan kasuko konpetentzien bereganatze-maila lor dezan. Erabaki hori behin bakarrik hartzen ahalko da etapan zehar, eta salbuespenezkoa izanen da.

GURASOEKIKO HARREMANAK

Maila bakoitzeko tutoreak derrigorrez bi elkarriketa gutxienez egin beharko ditu ikasle bakoitzaren familiarekin. Honetaz gain, tutore eta espezialistek astean zehar eta ordutegiaren barruan, saio bat izanen dute bere gelako gurasoekin elkarriketak egin ahal izateko. Familiekin bilerak egiteko guraso ordua ostegunetan 13:50etik 14:50era izango da eta familiak saio hori erabil dezakezue edozein irakaslearekin elkarriketa eskatu ahal izateko.

Bestalde, eskolako sarreran dagoen postontzian, eskuragarri daude edozein kexa, erreklamazio edo iradokizunak egiteko inprimakia. Eskolako web gunean ere iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta esker onak egiteko [formularioa](#) aurki dezakezue.

ZUZENDARITZA- IDAZKARITZA	ORDUTEGIA
Zuzendaria: Ernesto Dominguez Olea. Ikasketa Burua: Joseba Legarra Erasun. Idazkaria: Aitziber Ugalde Lizarreta. Bulegaria: Leire Zabaleta Telletxea eta Olaia San Miguel Atezaina: Gaizka Baigorri Belaza.	Bulego ordutegia: 09:00 etatik 15:00ak arte. Zuzendaritza ordutegia: Idazkaritzan ordua eskatuta.

GURASO ELKARTEA

Guraso elkarteak ikasle eta gurasoentzat zenbait jarduera eta ikastaro antolatzeaz gain, eskolako funtzionamenduan zuzenki laguntzen du. Ikastetxeko ospakizunen antolamendu eta ordainketan laguntzen du.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

Guraso elkartearen kuota:

Lehendakaria: Patxiku Irigoien Arretxea

ZERBITZU OSAGARRIAK

JANTOKIA(oharra)	GARRAIOA
Jantokiko prezioak ikasturte hasieran zehazten dira. Prezioak: Hezkuntza Departamentuak diruz lagunduta: 2,00 € Hezkuntza Departamentuak diruz ez lagunduta: 5,60€ Noizean behin gelditzen direnek: 6,50 € Irailan eta ekainean jantoki zerbitzua 15:00ak arte. Jantokiko arduraduna: Jaione Iribarren Saldias Jantokiko zerbitzua zaintzeko 9 zaintzaile daude.	Nafar Gobernuak garraioa antolatzeke 6 autobus eskaintzen ditu garraioa erabiltzeko eskubidea duten ikasleentzat. Irakasleek ikasleak lagunduko dituzte Arduraduna: Aiala Grajirena Juanena Garraiatuak diren ikasleek eskolara iristean ezin izango dute kanpora atera.

JARDUERA OSAGARRIAK

IKASTETXE MAILAN EGITEN DIREN JARDUERAK:

- EMAKUMEAREN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA: azaroak 25.
- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA : abenduak 2.
- EGUBERRIETAKO JAIALDIA: abenduak 20.
- EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA: martxoak 8.
- INAUTERIAK: Otsailak 28
- LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA: apirilak 23.
- AZKEN EGUNEKO JARDUERAK: ekainak 20.



SAN MIGUEL IP DONEZTEBE

ZEHAZTAPENAK 5.MAILA

DK0271JOEK (Erregistroa)

- [JOEK - Jarduera Osagarriak eta Eskolaz Kanpokoak](#)